


Jarrai ibiltzen



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

Ibiltzeak mila bertute dauzka. Juan Luis Zabalak hori zioen berriki: "Ibilian ziren / nire kezkek aienatu. // Ibilian ninduen / atsedena hartu. // Ibilian zitzaidan / bizitza indartu" (*Mina hartzeko ere*, Susa, 2022). Duela 250 bat urte, Rousseauk goraipatu zituen kurri aritzeak eragiten dituen onurak, laguntzen duelako hausnartzeko, irudikatzen, asmatzen, obrak sortzen (*Les Réveries du promeneur solitaire*, 1776-1778). Mende bat geroago, erromantikoek teorizatu zuten ibiltze ekintza (ikus Balzacen *Théorie de la dé-marche*, 1833), eta hori laudatu beren fikzio edo olerkietan (Victor Hugok, bereziki). Izendatzen ditudan idazle frantses horiek guziek konnotazio baimonkorra eman zioten *marche* hitzari.

Ildo horretatik, aro garaikidean biderkatu dira ibiltzea gorenaren lan filosofiko, psikologiko edo literarioak, esparru frantsesean. David Lebreton soziologoak, adibidez, argitaratu du *Éloge de la marche* liburua 2000. urtean, *Marcher. Éloge des chemins et de la lenteur*, 2012an eta *Un art tranquille du bonheur*, 2020an (Métailié). Esplikatzeko du lasterka aritzea gure bizimolde garaikidearen oinarria dela: tarrapatu hartu behar ditugu erabakiak, eta etengabe-

ko korrikak irensten digu pausatzeko, goxatzeko eta gogoetatzeko gure denbora. Berehalakotasun larrian gabilta, memoria galduta, gertakari fluxu zoroak eramanik, jakin gabe nola irau, kausetik zer salba, ondorengoei zer utzi. Zeingehiagoka horretan, azken finean, bizitza bera zaigu eskapatzen, zalu-zalu. Bizkitartean, ibiltzea erresistentzian sartzea da, dio Lebretonek, barne- eta kanpo-bakea, zuhurtzia eta bizipoza pizten dituelako, eta, hondarrean, bizitzari zentzu emateko parada eskaintzen duelako.

Gisa berean, Martine Segalen (*Les Enfants d'Achille et de Nike*, Métailié, 1994), Frédéric Gros (*Marcher, une philosophie*, Carnets du Nord, 2008), Sarah Marquis (*Sauvage par nature*, Pocket, 2015), Antoine de Baecque (*Une histoire de la marche*, Perrin, 2016), Sylvain Tesson (*Sur les chemins noirs*, Gallimard, 2016) eta hainbat intelektual interesatu dira ibiltzearen onbideei buruz.

Ez dira, haatik, solas horien heinekoak Emmanuel Macronen azken hitzak: berak jende xehearendako ontzat dauzkan lege berriak inposatuko ditu, kosta ahala kosta, "*à marche forcée*", erran nahi baitu, bortxazko urratsean. Hiztegi militarretik dator adierazpide

hori: bat doa frantses lehendakariaren alderdi politikoaren lehenagoko "En marche!" izenarekin, hau da gatazka armatu egoeran erabiltzen den esamoldea. Bat doa orokorrean bere buruz ematen duen itxura gerlatiarekin (berdin zaio ideia, birusa ala herritarra duen etsaia).

Hiztegi horren haritik datoz ekimen konkretuak, konparazio, Iparraldeko kolegioei hilabete honetan proposatua izan zaien "Hiritar rally" delakoa, hau da, ikasleendako ibilaldi lasterra armada frantseseko kide batzuekin, gazteek froga dezaten martxa militarra Baionan zehar.

"Renaissance" (Errenazimendua) izena eman zion bere talde politikoari Macronek, hauteskunde garaian, modu higuinarriz bereganatuz hitz horren inplizitu humanista. "Marche" izena, berdintsu, bereganatzen du, maniobra militarrek konbokatuz hartzailearen irudimenean, hitza erresistentzia indarretatik erauzi nahi balu bezala. Manifestariak, berriz, ez dute beren martxa gelditu, beren haserrea oihukatzen.

"Ibili-ibili eginda, / ibilia nuen / aberri bihurtu", du idazten Zabalak: bakezko aberriari jarraiki diezaiozun urratsez eta elez! ●